

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT) 2011ko 4. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorean salmentak % 1,5 jaitsi ziren 2011ko laugarren hiruhilekoan

2011. urte osoan, jaitsiera % 1,0koa izan da termino nominaletan

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritza sektoreko salmenta nominalak % 1,5 jaitsi ziren 2011ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean.

Gasolina-zerbitzuguneak alde batera utzita, sektoreko salmentak % 2,2 jaitsi ziren, urte arteko erkaketan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, eta estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, salmenten indizeak % 0,8ko jaitsiera nominala izan du.

1. taula. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. Egutegi-eragin zuzendua daukaten datuak

Urtea	Hiruhilekoa	Euskal AE	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
2010	I	5,2	3,5	4,8	6,6
	II	1,6	1,9	0,3	3,4
	III	-1,5	-1,2	-1,4	-1,8
	IV	-0,2	1,0	-1,0	0,5
2011	I	-2,1	-2,1	-2,6	-1,3
	II	-0,5	2,1	-1,2	-0,5
	III	0,1	-0,2	-0,4	1,0
	IV	-1,5	0,4	-1,5	-2,2

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko txikizkako Barne Merkataritzaren Indizea

Sektoreka, txikizkako merkataritza espezializatuaren salmenta nominalak % 1,6 murriztu dira 2011ko laugarren hiruhilekoan; txikizkako merkataritza espezializatu gabeen % 1,0koa da jaitsiera, 2010eko aldi beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren barruan, Bestelako Kontsumo-Ondasunak sektorea nabarmentzen da (besteak beste gasolindegia, ekipamendu informatikoa eta kirol artikuluak barne hartzen dituena), % 1,2ko hazkunde nominala izan baitu. Elikagaien sektoreko salmentak % 0,2 jaitsi dira, 2010eko hiruhileko bereko datuekin alderatuta. Etxearen Hornikuntzarako Gaien salmentak % 1,1 jaitsi dira; Pertsonaren Ekipamenduaren sektoreko salmentek ere behera egin dute (- % 3,9).

Txikizkako merkataritza espezializatu gabeen, batez ere elikagaiak saltzen dituzten azpisektoreetako urte arteko salmentak % 0,1 murriztu dira, eta batez ere gainerako produktuak saltzen dituztenen salmentek % 7,2 egin dute behera.

Lurraldeka, Arabako txikizkako sektoreko urte arteko salmenta nominalak % 0,4 egin dute gora; Bizkaikoek (-% 1,5) eta Gipuzkoakoek (-% 2,2) behera egin dute.

Prezio konstanteetan, txikizkako merkataritzaren salmentek % 3,3 egin dute behera laugarren hiruhilekoan.

Txikizkako merkataritzaren salmentek, gasolina-zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 2,9ko beherapen erreala izan zuten, aurreko urtearekin alderatuta.

Halaber, txikizkako merkataritza espezializatuaren beherapen erreala % 3,3koa izan da eta txikizkako merkataritza espezializatu gabearena % 3,0koa, betiere 2010eko hiruhileko berarekin alderatuta.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren barruan, urte batetik bestera bilakaerak negatiboak izan dira sektore guztietan: Etxearen hornikuntzako gaiak % 1,9 jaitsi dira, Pertsonaren ekipamenduak bezala (-% 1,9); Elikagaien salmentak % 2,3 jaitsi dira eta Bestelako kontsumo-ondasunek ere behera egin dute (-% 4,1), datu guztiak betiere balio errealetan.

Txikizkako merkataritza espezializatu gabearen barruan, euro konstanteetan, elikadura nagusi dutenen salmentek % 1,9 egin dute behera eta gainerako produktuak nagusi dituztenen salmentak % 10,1 jaitsi dira.

Hiru Lurralde Historikoetan egin dute behera salmentek balio errealetan: Araban % 3,3 jaitsi dira, Bizkaian % 2,6 eta Gipuzkoan % 4,5.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua % 0,3 jaitsi da 2011ko laugarren hiruhilekoan, 2011ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

2011ko URTEKO BALANTZEA

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %1,0ko jaitsiera nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerakoen salmentetan beherakada % 2,1ekoa izan da 2011ko datu metatuetan, 2010ekoen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik % 3,8 jaitsi da, eta gasolindegirik gabe % 3,3.

Lurraldeka, Arabak izan du portaerarik onena tasa nominaletan, urte osoan % 0,1 igo baita; Gipuzkoak behera egin du (-% 0,8), Bizkaia bezala (-% 1,5). Termino errealetan Arabak % 4,2ko jaitsiera izan du; Gipuzkoak eta Bizkaia ere behera egin dute (-% 3,7 bion kasuan).

Aurreko urteko batez bestekoaren aldean, 2011n txikizkako merkataritza sektoreko enpleguak izan duen beherakada % 1,7koa izan da, lurraldeka honela islatu dena: Bizkaian, % 0,8ko jaitsiera; Gipuzkoan, % 2,5eko jaitsiera; Araban, % 2,9ko beherapena.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)